7K

GAUR IGANDEA DA

1328 ZKIA.
2024 | 7 | 7

DAVID FERNANDEZ MILITANTE POLITIKOA

«Gatazkak hor dirau, botoi nuklearrak zapalduta jarraitzen duelako»

LUMA BERRIEN AZTARNAK **SUKARRA** | REPORTAJE **EL COLLAGE RENACE EN IRUÑEA** | BEGIRADAK **LA HIPOCRESÍA DE LA INDUSTRIA ALIMENTARIA**

lanzarotecaliente.com

7K 1328
2024 | 7 | 7

Portada eta aurkibideko argazkiak:
Idoia Zabaleta | FOKU

Argitaratzailea:
Baigorri S.A.

Editorea:
Ariane Kamio

Erredakzioa:
Miren Sáenz

Commission Paritaire:
0307 U 81405

Egoitza:
Portuetxe, 23 -2.A

943 316 999
www.naiz.eus/7k
zazpika@astero.net
@7k_GARA
facebook.com/zazpika

Iritzia

3 **Amaia Uribe**

5 **Jokin Urain**

Luma berrien aztarnak

6 **Sukarra**
Borja Alonso Vaamonde / Kristina Fernandez

Elkarrizketa

8 **David Fernandez**
Sustrai Colina / Idoia Zabaleta

Erreportajeak

16 **Emakume artzainak, burua eta bihotza lurrari**
Maider Iantzi / Gorka Rubio / Idoia Zabaleta

24 **El collage renace en Iruñea**
Aritz Intxusta / Idoia Zabaleta / Beatriz Molina

Begiradak

30 **Cine** Es exactamente la nada y mucho más

31 **Música** Jon Muq

32 **Panoramika** Narrativas transformadoras

33 **Literatura** Vorágine infantil

34 **Arkitektura** Egurra, arkitektura eta diseinua Egurtek-en

36 **Tendencias** Elle

38 **Konexioak** Reno 12 Pro 5G

39 **Psicología** Como montar en bicicleta

40 **Consumo** Estafas vacacionales

Kirola Barruko zein kanpoko entrenamenduak

41 **Salud** La industria alimentaria, todo lo que está mal

42 **Gastroteka** «No te fíes de un cocinero flaco»

44 **Motor** Las ayudas al eléctrico se prorrogan hasta fin de año

46 **Denbora-pasak**

47 **Horóscopo**

IRITZIA **AMAIA URIBE**

Sexu erasoak

Save the Children erakundeak egindako ikerketa baten arabera, iaz sexu erasoren bat jasan zuten biktimen ia erdiak adin txikikoak ziren. Eta talde bortxaketek %64 egin dute gora.

Sanferminetan murgilduta daude Iruñean eta, batzuk goizero entzierroa ikusteko esnatzen diren moduan, nik goizero egunkaria irekitzen dut sexu erasorik egon den ikusteko. Zezenen adarkadek besteko mina ematen didate festaz gozatzera doazen emakumeek jasaten dituzten erasoek. Iaz bakarrik, 15 salaketa egon ziren. Zinez espero dut aurten gutxiago egotea, baina beldurra ematen dit egungo gizarteak.

Nerabea nintzenean, parrandatik etxera sarritan joaten nintzen oinez. 2 kilometro daude Gernikatik Forura, eta sekula ez nuen beldurrik sentitu. Orain, baina, Gernika erdigunean bizita ere, ez nintzateke etxera lasai joango. Tamalez, gainera, belaunaldi berriak okerrera doaz. Save the Children erakundeak egindako ikerketa baten arabera, iaz sexu erasoren bat jasan zuten biktimen ia erdiak adin txikikoak ziren. Eta talde bortxaketek %64 egin dute gora. Mila plan bururatzen zaizkit lagunekin batera gozatzeko, baina kuadrillakoak batu eta denen artean emakume bat indarrez bortxatzea ez da plan horietako bat. Ezin dut ulertu, emakume baten sufrimenduak plazera ematea. Ezin dut ulertu, indarkeria eta boterea gozagarri izatea. Ezin dut ulertu.

Pornografia bihurtu da, haur eta nerabe askoren sexu heziketako irakaslea. EITBk emititu zuen "Porno belaunaldia" dokumentala ikustea besterik ez dago horretaz konturatzeko. 8 urterekin izaten dute umeek lehen kontaktua pornografiarekin, eta 14-15 urterekin, indarkeria handiagoko eduki pornografikoak bilatzen dituzte. Helduok badakigu pornografiak ez duela zerikusirik errealitatearekin, baina nerabeek gizonen dominazioa eta emakumeen sumisioa barneratzen dute, eta horrek ondorioak ditu euren sexu harremanetan. Pornografia bada euren erreferentea, ikusten dutena normalizatzen dute. Inoiz baino argiago daukat seme-alaben heziketaren zutabea etxean dagoela, baita sexu heziketarena ere. Eta 8 urteko semearen ama bezala, hasi naiz hau guztia nola landuko dudan pentsatzen.

Gizarte guztiaren inplikazioa behar da arazo honi amaiera jartzeko. Ezin dugu albo batera begiratu, ezin dugu normala ez dena normalizatu. Erasoak ozen salatu behar ditugu, beti biktimari sinistu. Matxismoa albo batera utzi behar dugu, "ez" ezetz dela ulertu. Aske bizi nahi dugu. Sanferminez eta gainontzeko festez gozatu nahi dugu, beldurrik sentitu barik.

bidaiari 033

naiz:-en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde berrietara goaz

LANGUEDOC-EKO GAZTELUAK

Kataroen erresistentzia

dagoeneko zure kioskoan salgai

1,50€

eta gainera...

KYZYL TUU
YURTA EGILEEN HERRIA

MANEKO UHARTEA
IRLANDAKO ITSASOAN HARRO GELDIRIK

EUSKAL HERRIAN BARRENA
UDA-GIROAN

PUREPECHA
AZTEKEK MENPERATU EZ ZUTEN HERRIA

BIANDITZ
URA, LURRA, SUA ETA HAIZEA

Elkarrizketa Ezra Gojenola Pertika: «Euskal Herrian ni naiz munduko herri guztiak bisitatu dituen bakarra
Bertatik bertara Boilurraren museoa, harribitxi gastronomikoa Lokizen magalean;
Urmugaren Urtanta, Nestor Basterretxeari omenaldia; 'Lurrina Balenciagaren garaian' erakusketa, usaimenaren bidezko bidaia usaintsua

IRITZIA **JOKIN URAIN**

Atentzioz

Osakidetzaz ere bai, osatu beharreko Osakidetzaz, eta kortesiaz. Todo cortesía. Señorías, Pradales jauna, beste jauna edo anderea eta horrela. Son corteses, aunque de Cortes no será todo el mundo. A, ez; hori Nafarroan dagoela, eta Pradalesena Gasteizen zen, en Euskadi!

Egon nintzen lehengoan, la semana pasada o la anterior, zera, diskurtsoak entzuten, de la investidura de Pradales. No sé si con mucha atención, baina nire atentzio ahalmen guztiarekin entzun nien; diskurtso guztiak ez dakit, pero casi todos. Uno hablando del aitona, la otra de la cesta de compra edo ez dakit zer, aro berriaz, del aro del pasado eta abar. Denetik hitz egin zuten. De todo. Mezuaz y del mesias. Derrotaz, garaipenaz y del futuro. Ez zaizula gustatzen? Pues quitas la tele y kito, como que no te has enterado, ta lehen bezain ondo geratzen zara. Niri interesantea iruditu zitzaidan, para quien le interese, claro; orain, ez bazaizu gustatzen politikarien diskurtsoak entzutea, ba, zer nahi duzu, pero es lo que hay.

Baina sentsibilitateaz asko hitz egin zuten, hablaron mucho, lankidetzaz ere bai, eta hau eta hori sustatu behar direla. Pero, sustatu esaten dutenean, cuando dicen hau sustatu behar da, hori sustatu behar da... yo creo que dicen que hay que darle susto. Susto a esto, susto a eso, y así hasta que nos asustemos todos y todas. Y de programa, zenbat programa, kristoren zerrenda. Eta arazo errealez, eta modeloez, y del elemento, primer elemento, segundo elemento eta horrela. Menudos elementos! Eta proiektuez, todo proyectos, zenbat proiektu, zenbat egitasmo eta egiteko, antzinakoak eta oraingoak eta gerokoak, los proyectos del abuelo, la "labuela", el canario y el parque para las mascotas. Denetik. Osakidetzaz ere bai, osatu beharreko Osakidetzaz, eta kortesiaz. Todo cortesía. Señorías, Pradales jauna, beste jauna edo anderea eta horrela. Son corteses, aunque de Cortes no será todo el mundo. A, ez; hori Nafarroan dagoela, eta Pradalesena Gasteizen zen, en Euskadi! Erraz konfunditzen gara geografian, que quieres, todo no se puede. Baina ulertzen didazu, ezta? Pues eso. Pero interesante, como te digo.

Pero lo tienes que tomar sin prejuicios, aurreiritzirik gabe, bestela dena hartzen duzulako gaizki, ezer ulertu gabe, bere testuingurutik kanpo, eta guztiari ateratzen diozu el punto, y eso no te deja ser "objetibo", y no es bueno para el entendimiento. Ez, ez da ona dena ulertzeko. El contexto es importante, nahiz eta zuri inporta ez. Kontuan hartu behar duzu besteen iritzia, eta enpatikoa izan, si no no vas a ninguna parte y no te hacen ni caso. Kasurik ez, bakizu? Eta horrela doa mundua, de culo. Baina gora Euskadi Astakalkuta!

Sukarra

Aspaldi izan ez nuen amets batek esnatu ninduen. Gaua zen, eta arin nindoan zuhaitz artean korrika, inoiz baino arinago. Belarrean distira egiten zuten ur tanta hotzek ez zidaten enbarazu egiten; izan ere, atsegin nuen freskotasuna abiadurak berotutako oinetan. Maldan gora abiatu nintzen, eta mendixkaren buruan arkume bat aurkitu nuen, ilargi betearen kontra.

Aztoratuta esnatu nintzen ostatuan, izerditan blai. Euriak leihoaren kontra jotzen zuen gogor. Atea zabaldu egin zen eta ama agertu zen. Eskuan zekarren kandela mahaitxoan utzi eta nire alboan eseri zen.

– Laztana, ondo zaude? –eskua kopetan jarri zidan –. Sukarra duzu berriro, Leire.

Mantan bildu eta besarkatu ninduen. Oin biluziak hartu zizkidan, eta bero sentitu nituen haren eskuak, sutan. Besoetan jaso eta sukaldera jaitsi ninduen. Min ematen zidan hitz egiten saiatzeak, eztarria zarrastatu arte garrasi egin izan banu bezala neukan.

Sukaldean, amak pertza bete ur jarri zuen berotzen sutan, eta leiho gainean esekitako belar batzuk hartu zituen. Txikitzen hasi ahala, pauso batzuk entzun ziren eskaileretan behera. Gizon bat agertu zen atetik, aho zabalka. Handia zen, bizarduna eta burusoila, barruko arropaz jantzita. Markos zen, bosgarren gelako maizterra.

– Zer da iskanbila hau? –galdetu zuen.

– Ez da ezer, Markos jauna, itzuli ohera –erantzun zion amak, oraindik ere bizkarra ematen –. Bi ordu falta dira gosarirako.

Begiratu zidan, eta nik, eztulari ezin eutsi, ihes egin nion bere begiradari. Hatz zikin bat luzatu zuen nigana.

– Txarto dago kakalardoa?

– Ez kezkatu, Markos jauna, ondo dago. Itzuli ohera, mesedez –errepikatu zuen amak. Egonarria agortzear zegoela sumatu nion.

Markosek ipurdia hazkatzeari ekin zion. Nazka eman zidan.

– Garrasi bat entzun dut. Marru bat bezala.

Amak buelta eman zuen, orain bai pazientzia agortuta.

– Imajinatu egin duzu, Markos jauna. Itzuli ohera, bi ordu falta dira gosarirako.

– Bueno, tira, emakume, ez dago horrela jarri beharrik – eta desagertu egin zen, azkenean, eskaileren iluntasunean.

Amak katilu bat bete zuen berotutako urez eta belarrak sartu zituen. Edateko eman zidan usain mingots eta zapore are nazkagarriagoa zuen likido hura. Labana balitz bezala sentitzen nuen eztarrian behera. Amak altxatu eta ate zabalaren aurrean kokatu ninduen, nire gorputza hotzari eskainiz. Eguzkia ez zen oraindik atera, eta larrak izotzak zurituta ageri ziren.

Ilustrazioa: **Kristina Fernandez**

– Badakit ez duzula atsegin, Leire, baina sukarra jaitsi behar dugu –masaila laztandu zidan eta alboan eseri zitzaidan –. Zurekin geratuko naiz hobeto sentitu arte.

Igotzeko esan nahi nion, bestela bera ere gaixotuko zela, baina eztarriak utzi ez. Zurrupada bat eman nion edabeari. Ez zen atsegina, baina mina baretzen zuen behintzat. Handik gutxira ezin izan nituen begiak zabalik mantendu, eta lokartu egin nintzen.

Berriz esnatu nintzenean, argia leihotik sartzen zen, euriak beira kolpatzen zuela oraindik ere. Arropa ezberdina neraman, eta izarak garbi zeuden. Izpiliku lurrina zerien, eta unetxo bat hartu nuen burua haien artean biltzeko, usainaz gozatzeko. Eztarria pitin bat minduta nuen oraindik eta nekatuta nengoen, baina oro har askoz hobeto sentitzen nintzen.

Ostatuko bi pisuak jaitsi nituen, eta sukalderantz nindoala, ahots batzuk entzun nituen jangelatik.

– Ume horri zerbait gertatzen zaio, egon zaitezte ziur –Markosen ahotsa zen.

– Bai, gaixotu egiten dela, ume guztiak bezala –erantzun zion ezagutu ez nuen beste gizon batek.

– Serio nabil, Inaz. Neskatxoa ez da normala, okertzen den bakoitzean gauza arraroak gertatzen dira. Ez zenuten atzoko marrua entzun?

– Animaliaren bat izango zen –ezagutu ez nuen hirugarren ahots batek –. Irudimentsuegia zara, Markos. Zenbat denbora daramazu ostatu honetan?

Atearen marko atzetik begira geratu nintzen. Markosekin batera aste horretan elkarrekin ailegatutako bi bidaiari zeuden eserita, kartetan jokatzen. Plater zikinak zituzten alboan, eta ardo botila huts bana. Bazkaldu berritan zeuden.

– Urte erdi edo, zer ba?

– Eta ez duzu familia nonbait? Ez duzu uste mugitzeko garaia duzula?

– Nora joateko? Non egongo naiz hemen baino hobeto? Ez, ez; hemen janaria prestatu eta arropa garbitzen didate. Ezkonduta baino hobeto nago hemen, ez dut ezein emakumeren tontakeriak jasan behar.

Hori entzutean aztoratu egin nintzen, eta eztula egin nuen berriro. Aurrera erori nintzen eta ateari eutsi behar izan nion.

– Hara, gure kakalardoa! – esan zidan Markosek –. Zutaz ari ginen, hobeto zaude?

Erantzun baino lehen amaren ahotsa entzun nuen sukaldetik.

– Leire, zer egiten duzu ohetik kanpo? –nigana hurbildu eta eskutik heldu zidan –. Utz ditzagun bakean gizonak, zatoz zerbait jatera. Barkatu, jaunak.

Gurina zabaldu zuen ogi puska batean, eta aurrean jarri zidan, esne katilu batekin batera. Jan ostean, Markosen hitzak oroitu eta luzaroan gogoratu gabeko pentsamendu bati ahotsa eman nion.

– Ama. Nor dut aita?

Amak, leihoaren aurrean harrikoa egiten zegoenak, buelta eman zuen.

– Zuk ama baino ez duzu, Leire.

Jan eta gero, amak ohera bidali ninduen bueltan. Eguna leihotik begira eman nuen, manta batean bilduta. Atsegin nituen ur tantek leihoan egiten zituzten marrazkiak, eta labur pasatu zitzaizkidan orduak behingoz atertu zuen arte.

Arratsaldean, Markos eta bi bidaiariak ikusi nituen, bata etxeko arroparekin, beste biak zorroa prest bideari ekiteko. Elkarri agur esan, eta bikotea urrundu zen. Baina beste zerbait ikusi nuen leihotik, gaua heldu zenean. Ilun hartan, zuhaixka batzuk astindu zituen zerbaitek, eta eskua sutan jarriko nuke bi begi distiratsuk begiratu zidatela urrunetik. Orduan ama sartu zen afariarekin, eta lotara joateko agindu zidan. Berriro begiratu nuenean, begiak desagertuta zeuden.

Ametsa errepikatu egin zen. Indar basatia sentitzen nuen gorputz osoan, eta izotzezko ilargi erraldoiaren azpian sentitzen nuen askatasuna inoiz dastatutako gauzarik gozoena zen. Oraingoan ia-ia ailegatu nintzen arkumearengana, egundoko goseak bultzatuta, baina beheko pisutik zetozen garrasiek esnatu ninduten. Ez nituen ulertzen, baina eztabaida doinua ezagutu nuen. Eztula egin nuenean, isildu egin ziren, eta ama etorri zen.

– Sukarra daukazu?

– Ama, ulu bat entzun dut.

– Barkatu, laztana, ez genuke gauez oihuka ibili behar. Egizu lo lasai.

Baina ez zen hura nik nioena. Nik entzundakoa kanpotik zetorren. Basotik. Eta ez zen oihua, berak zioen bezala. Ulu bat zen. Urrunetik zetorren ulu eder bakarti bat. Nekatuegi nengoen ezer galdetzeko, eta berehala lokartu nintzen.

Goizean, jaitsi eta Markos aurkitu nuen jangelan, bakarrik gosaltzen.

– Kaixo, kakalardo. Hobeto?

– Bai –erantzun nion. Zerbait zeukan begiradan. Zerbait sakona eta zitala. Ihes egin nuen sukaldera.

Egun hura ere leihotik begiratzen eman nuen, mugitu gabe, buruari bueltaka amets horiek zer ziren, eta zer susmatuko ote zuen Markosek niri horrela begiratzeko. Ez zitzaidan inoiz gustatu, baina orain beldurra ere sentitzen hasia nintzen hura gogora zetorkidanean. Gau aldera sukarra desagertuta zegoen, eta amarekin afaldu nuen sukaldean. Normalki egiten genuen bezala, harrikoa egiten lagundu nion, eta oheratu ginen.

Hirugarrenez, ametsa errepikatu zen, eta gau hartan bai, arkumea harrapatu nuen. Marraka egin zuen, eskuen artetik ihes egin nahian, alferrik. Ilargi betea gorriz busti zen, eta ekaitzak esnatu ninduen. Trumoiak baino ozenago entzuten zen oihu ito bat sartu zen kanpotik, eta leihotik begiratu nuenean, ama ikusi nuen han behean, euripean. Belauniko zegoen, Markosen burua magalean harturik, zeinak, bularra txiki eginda, odola galtzen zuen larriki, bustitako belarra zikinduz. Amak zerbait oihukatu zion basoari, eta ni lurrera irristatu nintzen, arnasestuka.

Ezin izan nuen lorik egin, baina eguzkia atera arte itxaron nuen ohean, leihotik begiratzera ausartu gabe. Jaitsi nintzenean, ama zegoen sukaldean, eta ostatuan ez zen ezer entzuten.

– Egun on, Leire –esan zidan, eta urduritasuna eta pena ikusi nizkion begiradan –gose?

– Non da Markos?

– Joan da.

Isilik egon nintzen une batez, gosaldu bitartean, baina bazen gogotik aldendu ezin nuen zerbait.

– Ama — esan nion –. Nor dut aita?

Sendabelarrak lehortzen esekita zeuden leihora astiro hurbildu, eta basoari so geratu zen. Leihoaren islan malko bat ikusi nion masailean behera. Ez zidan ezer erantzun, eta aurpegia berotzen sentitu nuen, eztulari ezin eutsirik.

Idazleari buruz...

Borja Alonso Vaamonde. Idazle eskolako ikaslea, bilbotarra, zapaturo-zapaturo goizeko zazpietan nekez jaikita ere. Baina esaten den bezala, gogoko tokian aldaparik ez. Hau ez da nire lehenengo ipuina, baina bai pozik geratzen naizen lehena.

DAVID FERNANDEZ
MILITANTE POLITIKOA

«Benetan mobilizatzen nauena bizi naizen munduarekiko izu-ikara da»

Testua: **Sustrai Colina** Argazkiak: **Idoia Zabaleta | FOKU**

Kazetari gehienek aitortuko dizute: askoz interesgarriagoa da politikari bat behin erretiratuta elkarrizketatzea, fokupean dagoenean baino. Salbuespenak ere badira, ordea. Badira politikari izan aurretik, politikari zirenean eta politikari izan ostean interesa pizten dutenak. Horietako bat da David Fernandez (Bartzelona, 1974), CUP-eko Kataluniako parlamentari ohia eta orotariko mugimendu eta militantzietan zaildua.

Irribarretsu dator Iruñeko Kale Nagusian barrena. Turista kataluniar talde batek ezagutu eta argazkia eskatu dio. 2012ko maiatzean galdu zituen anonimotasuna eta pribatutasuna berreskuratu nahi lituzkeela kontatu digu, **7K**-ko argazkilariari irribarre egiten dion bitartean. Baliteke irribarrea bere buruari egin izana.

Nola oroitzen duzu 2017ko urriaren 1a? Pertsonalki, gure bizitzetako zorion konpartitu handienetakoa bezala. Jende askoren bizitza aldatu zuen eguna izan zen; 2024ko hauteskundeetan gertatua gertaturik ere, atzera bueltarik gabeko inflexio puntua. Hazi baten gisa interpretatzen dut: sekulako espektatibak piztu eta ikusmirak zabaldu zituen aro bat, azken 30 urteetan Europan izan den desobedientzia zibil ekintzarik handiena, jendearen onena eta errepresioaren okerrena, elkartzeko eta automobilizatzeko gaitasuna... Egiari zor, orduko izpirituarekiko nostalgia eta mira sentitzen ditut oraindik.

Historia idazten ari zineten sentipena duzu faltan? Bai, erabat. Gogoan dut, egun hartan, militante libertario historiko batek errepikatzen zigula: «Goza ezazue bizitzen ari zaretena, hemendik landa denak okerrera egingo du eta!». Egun hura inflexio puntua izan arren, urteetako gatazkaren uberan zetorren. Ezin da Kataluniako gatazka ulertu gure belaunaldia baino atzerago jo gabe. Zergatik izan zen inflexio puntua? Estatuak oraindik askatu ez duen botoi nuklear bat zapaltzea erabaki zuelako. Gaur egun, intentsitate baxuagoko gatazka batera igaro garela dirudi, baina gatazkak hor dirau, botoi nuklearrak zapalduta jarraitzen du oraindik. Esaterako, azken hilabeteetan, Ginebrara erbesteratu behar izan dute hainbat herritarrek eta, gehiago ala

Elkarrizketan, etorkizunari buruz kezkatuta agertzen da David Fernandez. Mugimendu sozialak berreraikitzeko beharra ikusten du.

gutxiago berbalizatu arren, denok dakigu urriaren 1a itzuliko dela.

2024ko maiatzaren 12ko hauteskundeetan independentismoak gehiengo osoa galdu duela azpimarratu da, ordea. Oso kuriosoa da. Kalitateari dagokionez, politika asko degradatu da. Paradoxa lotsaemangarri asko agertu dira. Adibidez, PP-koek boto-kutxen emaitzak errespetatu behar direla diotenean, «lehenago errespetatu izan bazenituzte, agian ez ginen hemen egongo!» pentsatzen dut nik. Gauza bera Salvador Illak Kataluniak Espainian geratzea erabaki duela adierazten duenean. «Ziur zaude, Illa jauna? Inori deus esan gabe erreferendum bat antolatu duzue?». Zinismoa da nagusi. Diskurtsoak boterearen komenentziara etengabe moldatzen direnean, hitzak hain trukagarriak eta maiztuak direnean, demokraziak galtzen du. Alabaina, ezin gara engainatu, 2017tik honako prozesuan, punturik apalenean gaude, baina horrek ez du esan nahi prozesua desagertu denik. Maiatzaren 12ko hauteskundeen emaitzak ez ditut porrot baten gisan bizi, autoporrot bat bezala baizik. Afera ez da partida galdu dugula, jokatzera agertu ere ez garela egin baizik. Mugimendu independentistaren autosuntsiketa erakusten dute emaitzek. Orain gertatu dena, ordea, ez da soluzio bat, *stand by* egoera bat da, zenbat iraungo duen inork ez dakien trantsizio bat. Ziklo amaiera bat da, ez prozesuaren bukaera. Independentismoaren baitako gerrek ez dute inolako estrategia bateraturik eman, alderdien interesek interes kolektiboa zapaldu dute eta, gauzak aurrera ez doazenean, frustrazioa, konfusioa, ezina eta erresumina ereiten dira.

Zer iradokitzen dizu amnistia legeak? Testigantza ezberdin askorekin osatzen den errelato batean, belaunaldiz belaunaldi doan arnasa bat bezala ulertzen dut prozesu hau. Kataluniarrok akats handi bat daukagu: ez dakigu garaipenak ospatzen. Amnistia lege bat gertakari historiko bat da, Espainiako historia garaikidearen testuinguruan oso esanguratsua. Onartu beharra dago, aitzitik, kasualitatea eta txiripa ere faktore politikoak direla. 2023ko uztaileko hauteskunde osteko kalkulurik gabe, ez litzateke amnistia legerik egongo. Denoi dagokigu "post-procesak" banatu dituen kartak onartzea. Denoi. Estatuak denbora asko galarazten digu, are gehiago galarazten saiatuko da, baina zer gertatzen da gure artean galtzen dugun denborarekin, elkarri galarazten diogunarekin? Hori da garesti ordaintzen ari garena. 2017tik 2024ra milioi bat bozka galdu ditu independentismoak, baina boto horiek ez dira PSC-ra edo AC-ra joan.

«Maiatzaren 12ko hauteskundeen emaitzak ez ditut porrot baten gisan bizi, autoporrot bat bezala baizik. Afera ez da partida galdu dugula, jokatzera agertu ere ez garela egin baizik»

Estatuak ez du denbora bakarrik galarazten. Zaurgarritasun osoarekin eta inongo gizonkeriarik gabe diot: zernahi espero dut estatuarengandik. Pedro Sanchezek gerra zikina salatzen duenean, ez dela hori pairatzen lehendabizikoa erantzuten diote Podemosekoek. Hori entzutean, «zuekin baino lehenago hasi ziren gurekin!» asaldatzen gara kataluniarrok, baina ez dezagun ahantzi zerrendan aurren-aurrena Euskal Herriko ezker abertzalea izan dela. Proces-ari buruzko epaiketa hasi zenean, 18/98 auziaren berri eman behar izan genuen, askok ez zekiten izan zenik ere. Zentzu horretan, Espainiaren kalitate demokratikoari dagokionez, pedagogikoa bezain libratzailea izan da kolektiboki urratutako bidea.

Eta pertsonalki? Epaile baten instrukzioan amarekin izandako frutari eta estufari buruzko neguko elkarrizketa bat irakurtzeak higuin fisiologikoa eta nazka politikoa eragiten dizkit. Asko hitz egin da "La vida de los otros" filmaz ["Das Leben der Anderen", 2006; Florian Henckel von Donnersmarckek zuzendutako filma, Stasiri buruzkoa] gurean ezer ez delako pertsonala, kolektiboa baizik, baina Antonio Batista adituak oso ongi azpimarratzen zuen gisan, gure erreferentzia, pelikula hori ez, via Laietanako 43.ean dagoen Polizia Nazionalaren egoitza da. Frankismoaren garai ilunenetan bezala, hortik zabaltzen da errepertorio osoa. Oroit dezagun 2017an koxka militarra izan zela Espainiaren planean exekutatu gabe geratu zen bakarra. Horregatik, memoria kolektibo metatuaren jabe bazara, badakizu eskubide urraketa guztiak posible direla, Espainiaren marka inpunitatean oinarritzen dela... Zer espero behar duzu bere Gobernuko presidentea ere harrapatzen duen sistema batez?

Azken aldian, gero eta polizia infiltratu gehiagoren kasuak ari dira argitara ateratzen. Mugimendu sozialetan gertatzen diren infiltrazioak dira; ordea, ez orain arte estatu-aferatzat jo izan direnetan. Zer dago horren atzean? Grande Marlaska Espainiako

barne-ministroak Omniumi idatziz helarazitako mezu bat. Kataluniar mugimendua bere osotasunean estatuaren aurkakotzat jotzen da bertan eta, ondorioz, terrorismoari bezala egiten zaio aurre. Oso zikoitza da. Egin dituztenak egiteko daukaten marko legal bakarra da. Baina zer zerikusi du horrek aurpegia bistan jokatzen duen eta egiten duen oro sare sozialetan zabaltzen duen mugimendu batekin? Eta, gainera, independentismo katalaniarra terrorismoa bada, estatuaren aurkakoa bada, zergatik hitzartzen duzu gobernu bat berarekin? Terroristekin paktatzen ari zarete? Zertan geratzen gara? Eraiki duen diskurtsoaren biktima da Espainia.

Mugimendu sozialetan nola Parlament-ean ibilia zara zu. Nola bizi duzu indar sozial eta instituzionalen arteko harreman askotan gatazkatsu hori? Oso perspektiba sano batetik, ezinbesteko zein etengabeko tentsio eta gatazka batetik. Bien arteko bat egiteak zein desadostasunak kudeatzen jakin behar da. Omniumek eta ANC-k, adibidez, soka tenkatzen asmatu dute batzuetan eta, beste batzuetan, berriz, koltxoi bezala jokatzen jakin dute. Gauza bera gertatzen da feminismoa edo ekologismoa bezalako arloetan. Nik dakidan bakarra da ez dela inoiz egongo barrurik kanporik gabe eta alderantziz. Aldaketa juridiko, sistemiko eta politikoak beti datoz koletibo edo komunitate politiko bat autoantolatu delako aurrez. Hori gabe ezin da. Horregatik, uste dut Katalunian mugimendu soziala, bere zentzurik pluralenean, berreraikitzea dela lehentasuna. Hori da exijentzia politikoa sortzeko bidea. Demokrazia askoz konplexuagoa, parte hartzaileagoa eta lurtarragoa merezi dugu. Lau urtez behin agintariak hautatzera mugatzen den demokrazia pobrearen hurrengoa ez, terratenienteena da.

Baina sistema eraikita dagoen gisan, badirudi jende gutxi egon daitekeela, aldi berean, mugimendu sozialetan eta politika profesionalean, ezta? Mugimendu sozialek beti izango dute alderdiek irensteko edo disolbatzeraino kontrolatu nahi izateko arriskua. Aspaldiko teoria da sozialdemokraziak, boterera iristeko, mugimendu sozialak eskilara legez erabiltzen dituela eta, behin boterera iritsita, eskilara jaurtitzen diela gainera. Horregatik, ezker subiranista eta alternatiboek mugimendu sozialen zerbitzura egon nahi badute, zikloak errespetatu behar dituzte. Ez da ezer gertatzen desadostasunak badaude, adostasunak ez badira erabatekoak, eztabaidak edo gatazkak sortzen badira...Susmoa dut azken urteetako kapitalismoaren garaipen handiena ez dela ez ekonomikoa, ez ideologikoa, kulturala baizik. Gizarte lotura komunitarioak birrindu dira eta horiek berreraikitzea dagokigu, lotura horiek definitzen baikaituzte gizarte kontraesankor eta konplexu gisa. Elkarrekin bizi behar dugu, ez elkarren kontra.

> «Memoria kolektibo metatuaren jabe bazara, badakizu eskubide urraketa guztiak posible direla, Espainiaren marka inpunitatean oinarritzen dela... Zer espero behar duzu bere gobernuko presidentea ere harrapatzen duen sistema batez?»

Nola gogoratzen dituzu legebiltzarkide izan zinen urteak? Urte bizi eta intentsoak izan ziren, etengabeko ikasketa batean bizi nintzen sentipena neukan. Nire begiz konprobatu nuen legebiltzarrei zinezko botere politikoa erauzi zaiela eta parlamentuek botere gutxi izatea merkatuek harturiko erabaki politiko bat dela. Ekonomiaren fase politikotik politikaren fase ekonomikora igaro gara. Saiatzen zarenean boterea non dagoen atzematen, ez duzu ikusten, ez dago parlamentuan. Horren aurrean, esperantza karga handi batekin gobernatzea ahalbidetzen diguten erakunde politiko komunak behar ditugula uste dut.

Parlament-a botere politiko gutxikoa bezain klasista dela esan izan duzu. Gure janzteko modu eta itxuragatik gutxiesten gintuzten. Zergatik? Boterearen liturgia bat dagoelako. Guk arazorik gabe kudeatzen genuen hori, bizitza osoa eman dugulako bazterrean eta, karrikan ere oker begiratzen gintuztenez, ohituta geunden. Oso erantzun erraza geneukan, gainera: «Ez al dakizue herri honetan lapurrak janzten direla trajez? Guk ez dugu lapurrak bezala jantzi nahi!». Baina oso ikuspegi elitista zen nagusi. Arrotzak ginen beraientzat. Hori gutxi ez eta 15M-aren sasoiak ziren eta susmoa dut negozioa arriskuan nabaritzen zutela. Horrelakoetan sistemak beti egiten du gauza bera: behetik ireki dena goitik itxi. Horregatik diot ezinbestekoa dela autoantolakuntza, mugimendua eta bizitza egotea behean, goitik itxi nahi dutena behetik zartatzeko.

Nola kudeatu zenuen etengabeko esposizio mediatiko hura? Militantearen ikuspegitik zer aldatu asko dago. Lehendakaririk, zuzendaririk edo nagusirik ez dagoen eta horizontala izan nahi duen mundu asanbleario batetik zatozenean, kudeagaitzak bihurtzen dira

fokupea eta espektakuluaren gizartea. Beti da gatazkatsua egitasmo kolektibo baten eta erreferente premiaren arteko gatazka. Uste dut hori izan dela peajerik handiena, susmoa dut ordaintzen ari naizela oraindik. Ikuskizunaren gizarteari buruzko analisi oso kritiko bat eskatzen du testuinguruak. Gainontzeko militantziakideekiko diferentziak, logika piramidalak, besteek ikusten eta instrumentalizatzen zaituzten modua... Gatz asko bota daiteke zaurira. Ezarritako sistema gure logika politikoarekiko antagonikoa zenez, egoera ezberdin asko kudeatu behar izan genituen. Esaterako, hilabete eta erdi oro, elkarrizketa bat tokatzen zitzaigun Kataluniako Telebisa Publikoan, eta, hastapenean, ni nintzen onartzen zuten bozeramaile bakarra. CUPen izenean nork hitz egiten zuen CUPek erabakitzen zuela erantzun genien arte, ez zen bakerik egon, ez zuten amore eman. Hedabideetan zein parlamentuan, errotazio sistema bat jarri genuen martxan. Guk naturalki onartzen genuena gainontzekoei onarraraztea asko kosta zitzaigun, ordea.

Kazetaria izateak lagundu zizun ikuskizunaren gizartean modu eraginkorrean mugitzen? Bizioz edo bertutez, betidanik jarraitu izan dut politika. Banekien non sartzen nintzen. Esango nuke kolektiboki kode berri bat inposatzen asmatu genuela. Politika parlamentarioan gutxi eta kalean asko erabiltzen ziren hitz arruntak txertatu genituen debatean. Kooperatibismoa, desobedientzia, feminismoa, ekologismoa... Ordura arte apenas entzuten ziren Parlament-ean. Denentzat oso ulergarria izango zen kode bat sortzea izan zen gure apustua, denek izan zezatela argi zertaz ari ginen Katalunian egunero 70 etxegabetze gertatzen zirela salatzen genuenean. Erreleboa eman genuenean, Parlament-eko takigrafo taldeak esan zigun ordura arte inoiz idatzi ez zituzten hitzak jaso zituztela guri esker.

CUPeko estatutuei segituz, legegintzaldi bakarra eginda eman zenuten erreleboa. Ezer ez da betiko, ez ona ez txarra, ez garaipenak ez porrotak. 1979tik diputatua zen eta egunero Bartzelonako Palace hotelean gosaltzen zuen legebiltzarkide batek gorpuzten zuen aro batetik gentozen. Horregatik jarri ginen hain zorrotz. Horregatik legegintzaldi bakarra eta etxera. Horregatik kargurik ez bikoiztea. Berehala jabetu ginen, ordea, parlamentuko lana konplexua zela askotan, erakundearen tripen ezagutza eskatzen zuela, lege eta prozedurei buruzko jakintza eta, ondorioz, gehienez bi legegintzaldi egitea proposatu genuen CUPen.

Beste askok bizitza osoa daramate karguz kargu. Independentismoaren kasuan, etxera joaten lehena Jordi Cuixart izan zen. 2022ko otsailean berriz aurkeztu ez zenean oso mezu argia utzi zuen lerro artean, 2017ko lidergoek ez zutela 2022rako balio, odol eta aurpegi berriak behar zirela. Zenbait lidergok proposamen estrategiko bateratuak blokeatu dituzte

eta konfrontazio oso bortitzak eragin. Urteen perspektibatik begiratuta, gatazkak pertsona jakin batzuengan enkistatu direla uste dut. Ez zen egoera erraza, ordea. Pertsona horietako asko errepresaliatuak ziren, tartean exilioan zegoen eta lehengoratua izatea merezi zuen Generalitateko President bat.

Pertsonez harago doa perspektiba historikoa? 2021era arte aski ongi eutsi geniolakoan nago. 2019tik 2021era tentsio horiek existitzen ziren, baina bi gertakarik biderkatu zuten euren intentsitatea: espetxe zigor luzeen sententziak eta pandemiak. Horrek, alde batetik, inoiz izan gabeko gehiengo independentista bat eman zigun 2021eko otsailean, baina, bestalde, ixten gero eta zailagoak ziren zauriak zeuden alderdi independentisten artean. Poeta zaharrak zioen bezala, sekula ez da herri bat pertsona bakarraren agindupean jarri behar. Zergatik ez gara gai izan dena alde genuen legegintzaldi batean aurrera egiteko? Hori da gizartean ulertu ez dena. Hori da desmobilizazioa ekarri duena. Alderdi guztietako pertsonalismoaren gehiegikeriaren ondorioak dira.

Prentsak ez al du laguntzen tentsioaren intentsitatea biderkatzen? Jakina. Pentsa, Espainiar estatuan errepresioa trinomio bat da: Guardia Zibila, prentsa eta justizia. Hori da ohiko katea, une jakinetan elementuen ordena aldatu arren. 2017an, subiranismo espainiarrak, manifestazio jendetsuak antolatzen zituen aldi orotan, autobusak ekarri behar izaten zituen kanpotik. Ez zeukaten egitasmo alternatiborik, gurekiko kontrakotasuna baino ez. Hala, pertenentzia sentipen hori sustatzeko zeuzkaten arma nagusiak ez ziren ez Ciudadanos ez PP, Antena3 eta Tele5 baizik. Tankeak ez ziren Diagonaletik sartu, Antena3 eta Tele5tik bidali zituzten. Basakeria hutsa izan ziren gorroto diskurtso hura eta errealitatearen manipulazioa. Oraindik dirauen beldurra txertatu zioten independentista ez den kataluniar gizarteari. Zer esan dezaket ez dakigunik txandakako gobernuek kontrolatutako medio publikoez edo administrazio kontseiluen mende dauden hedabide pribatuez? Horrela amaitzen dugu hedabideez euren nagusiei buruz dugun iritzia izaten.

Garai nahasiak dira prentsarentzat ere. Etengabeko zarata desaktibatu eta ahotsik gabekoen altaboza izan behar luke prentsak,

«Susmoa dut azken urteetako kapitalismoaren garaipen handiena ez dela ez ekonomikoa, ez ideologikoa, kulturala baizik»

baina, aldi berean, sakelakoaren aurkako kontzientzia ere sortu behar luke. Nondik kontsumitzen dugu informazioa, ordea? Gizarte lotura komunitarioak berreraiki behar ditugula diogunean, sozializazio espazioak ezin direla pantailak soilik izan esaten ari gara. Denoi ematen digu min egunean zehar segapotoa zenbat erabili dugun begiratu eta listua irentsi behar izaten dugun une horrek. Zer da kapitalismoak gehien lapurtzen digunа? Denbora eta arreta. Zeri eskaini behar genizkioke denbora eta arreta? Bizitzari eta munduari. Egungo kazetaritza eredu asko, alta, entretenimendutik ala ogiaren eta zirkuaren bertsio distopiko batetik gertuegi daude.

Sistema salatzen duenak ere erreproduzitzen du sistema. Hor dago debatea. Nola iritsi gara sakelakoak dena konponduko zigula sinestera? Ez teknofobiarik ez teknofiliarik,

mesedez. Hautatzen ez dituzun edo hautatu ezin dituzun guda zelaiak daude, baina ia beti hautatu dezakezu bataila hori nola libratu. Teknika ez da sekula neutroa izaten. Zure telefonoak zuk baino gehiago daki zutaz. Denok dakigu algoritmoa zer den. Denok dakigu telefonoaren erabileraren atzean kontrol soziala dagoela. Denok dakigu errealitate paraleloak sortzeko sekulako tresna dela. Espainian TicToceko jarraitzaile gehien dituen alderdia Vox izatea kasualitatea dela uste duzu?

Espainian bakarrik ez, mundu guztian ari da gora eta gora eskuin muturra. Mundua bihurtu den Frankestein globalean, askotarikoak dira Trumpismoak. Are gehiago, elkarrekiko kontraesankorrak ere izan daitezke. Hori bai, denek arakatzen dituzte gure oinarrizko beldur eta intseguritateak eta denek dihardute ingeniaritza sozial oso erasokor batekin zaurgarrienak atzaparpean harrapatu nahirik. Izugarria da nola joan diren erortzen behialako auzo elkarteak, herri mugimenduak zein mugimendu sindikalak eta nola sartu den sukalderaino eskuin muturra jokaldia erematatzera. Ezkerraren erantzukizuna zuzenean interpelatu behar luke horrek. Egia da horren aurkako erresistentzia ere badagoela, baina, ez gaitezen engainatu, Bartzelonan, bizi-esperantzari dagokionez, hamar urteko aldea dago auzo pobre eta aberatsenaren artean.

Bartzelonaz, zure hiriaz, galdetu behar nizun... Bartzelona S.A. Ordu oro familia batek bere etxea galtzen duen hiria. Hilabete oro alokairuaren prezioak marka hausten duen hiria. Hamabost urteko higiezinen krisi argi utzi du politika ez dela deus frenatzeko gai. Ez da fatalitatea, boterea merkatuen esku uzteko erabakia da. Pentsa, Bartzelonako turismo partzuergoak ere onartzen du turismoak goia jo duela hirian! Masa turismoak, kruzeroen turismoak, hiria eraldatu eta gizarte geruza guztiak eraitsi ditu. Ni Gracia auzokoa naiz eta ez da nire haurtzaroaz deus geratzen. Auzo osoak eta jende askoren bizitza duinerako eskubidea erailtzen ditu turismoak. Hala ere, tranpa sistemiko batekin egiten dugu topo. Hiriko jabetza egituraren %8 baizik ez da funts putreena. Horrek zer esan nahi duen? Etxebizitza bat baino gehiago duen klase altu eta ertaineko jende asko baliatzen ari dela hiri egitura horretaz. Aldi berean, funts putreek %15eko errentagarritasuna eskaintzen zuten iaz Bartzelonan. Horretarako, ez dago sekreturik, jende asko bota behar duzu etxetik, jende askori izorratu behar diozu bizitza. Ezin dut etxebizitzaren aldeko batailara zotz bat eskuan goazen sentipena erantzi. Merkatuek egunero bozkatzen dute, guk lau urtean behin.

Hala, nola egin desesperantzari aurre? Asko da gutako bakoitzak egin dezakeena. Kontua ez da paradisura iristea, infernutik ateratzea baizik. Datorren olatu erreakzionarioak denbora galaraziko digu, bidez erratuaraziko gaitu, baina ni benetan mobilizatzen nauena bizi naizen munduarekiko izu-ikara da. Esperantza erradikala baino ez zaigu geratzen. Ez dugu ezer asmatu beharrik: garai onak ahal beste luzatzea eta makurrak laburtzen tematzea da gakoa.

Emakume artzainak, burua eta bihotza lurrari

Testua: **Maider Iantzi Goienetxe** Argazkiak: **Gorka Rubio eta Idoia Zabaleta | FOKU**

Elikadura burujabetza defendatuz, nekazariek Iruñean egin zuten manifestazioa, eta bilera Noainen. Kide batek hala aipatu zuen bertan: «Duela 500 urte gudu bat egin zen Nafarroako lurraren alde, eta 500 urte geroago, lurra saltzen ari da jendea kapitalari, maitasunik eta begirunerik gabe, gure muturren aurrean».

Duela bi urte hasi zen omenaldiaren ekimena Larraunen. Plazaola partzuergoan bilduta daude emakume artzain eta gaztagile mordoxka bat feriaz feria ibiltzen direnak, eta hortik atera zen ideia. Aurten Leitzaren txanda izan da. Emakume Artzainen Egunaren barruan, aitzineko edizioetan Larraun-Lekunberrin eta Araitz-Betelun omendutako artzainen testigua jaso zuten Leitzako 40 bat artzainek. Emakumeek baserrian, etxeko lurraldeko ekonomian eta artzaintzan egindako lana azpimarratu eta goraipatu zuten. Eta genero ikuspegitik emakumea ikusarazi. Izan ere, sarri, jardun hau gizonezkoarekin lotzen da. Baina etxalde guztietan eta bereziki paraje hauetako baserri munduan, atzeko alde horretan emakumearen papera hagitz inportantea izan da. Horregatik heldu zen omenaldi hau.

Udaletxeko karrerapean, feria eguna biribilduz egin zen ekitaldian nabarmendu zutenez, emakumeei tokatu zaie maiz beren gain hartzea artaldea, etxea eta familia, batere aitortzarik jaso gabe, gainera. Emakume artzainaren lana zaintzan oinarritu da, eta giltzarri izan da transmisioa bermatzen eta sektorea eraberritzen.

Larraun eta Araitzeko emakume artzainen ordezkari, omenaldiaren lekukotza ekarri zuen Baraibarko Izaro Noainek Leitzara. Hala mintzatu zen amonaz: «Amona Nikasik, Baraibarkoa, ezkondu zenean hasi zuen artzain ibilbidea. 50 urte baino gehiago igaro dira eta oraindik jardunean jarraitzen du. Berak beti esan izan du gazta salmentari esker, Euskal Herriko hainbat toki ezagutu dituela eta baserria aurrera atera duela, eta gaur egun gazta saltzen jarraitzeaz harro dago, eta ni ere beratz oso harro nago».

Lorea Goikoetxearekin batera, bera ere artzainen alaba, arrosondo bat eman zien Lurdes Sorron eta Aintzira Olalde amona-bilobei. Eta hauek testu bat irakurri zuten elkarrekin, Aitziber Lurdesen alabak eta Aintziraren amak idatzia:

«Arrosa, arantzaz eta edertasunez betea. Artzaintza, natura, baserria, emakumea, tribua. Arantza asko, lana, nekea, babes falta. Baina edertasun gehiago, askatasuna, familia, arnasa, bizitzaren taupada. Baserria, bizitzaren oinarria, elikatzen gaituena, gaur egungo erritmo azkarra geldiarazteko ispilurik handiena. Norbera, besteak, konektatzen gaituena. Iragana, oraina eta etorkizuna, esentzia. Bihotz-bihotzez eskerrak amari, amonari eta urteetan isilean gorputza, burua eta bihotza lurrari eman dioten emakume guztiei».

Zenbait artzainen testigantzak jaso ditugu erreportaje honetan.

Leitzako 40 bat artzain bildu ziren maiatzaren 19an herriko plazako karrerapean, omenaldia jasotzeko. Bide batez, azoka egin zuten.
Gorka Rubio | FOKU

GOTZONE SESTORAIN ZABALETA 58 URTE. GORRITZ BASERRIA

«Agian irekitzen hasi behar dugu familiatik kanpoko jendeetara. Baserriak ezin du derrigortutako zerbait izan. Maitatu behar duzu»

Leitza inguruko baserrietan batez ere emakumeek egin izan dute gazta. Garai batean artzain izatea bizimodu baten parte zen. Inguru honetako ia etxe guztietan ardiak zeuden eta artzaintza eta gazta egiten zen. Baita Leitzako Emakume Artzainen Egunean ikusi eta dastatu ziren elikagai guztiak ere: axuria, antxumeak, tripotxak... Hori gaur egun gainbehera doa. Gero eta gazte gutxiago dago, eta segida nola lortu, horixe da erronka. Orokorra da sektore guztian baina, halere, hobekien eutsi dionetako bat inguru honetan artzaintza izan da, gaztagintzarekin lotuta (norberak eraldatuz edo industriari esnea salduz).

Idiazabal naturala eta ketua egiten da. Gazta urdina ere bai gero eta gaztandegi gehiagotan. Bertze gazta mota batzuekin esperimentatzen ari dira. Gazta biguna egiten duen gaztandegi bat ere badago. Ahuntz gazta egiten duen bertze bat. Behi esnearekin jogurta, gurina eta halako gauzak egiten dituztenak ere badira. Zona hau bereziki abeltzaintzari lotua dago, ardiari eta behiari. Leitzan gehiago ardia eta haragitarako behia.

Gotzone Sestorain Zabaleta, Gorritz baserriko gaztandegian lanean.
Idoia Zabaleta | FOKU

Larraun eta Araitzekoak bezala, hagitz hunkigarria eta polita izan zen Leitzako omenaldia ere. 40 emakume artzain inguru omendu zituzten, tartean Gotzone Sestorain Zabaleta. Berea izan zen ekitaldiaren amaieran aditu zen irrintzi ederra. Sekulakoa izan zen berarentzat parte hartzea. Barrenak mugitu zitzaizkion.

«Giro oso ona egon zen, jendea oso pozik zegoen. Ederra izan zen. Gainera, gazta pila bat saldu genuen, tripotxa eta antxume guztiak. Ez genuen espero hainbeste jende hurbiltzea», kontatu digu.

Elikagaiak emakumeen eskuetatik etorri dira gehienetan, eta hori ikusaraztea berebizikoa iruditzen zaio.

IRAGANEKOA AITORTUZ, BIRMOLDATU

«Emakumearen lana baloratzen hasi da gizartean feminismoa indarra hartzen hasi denean. Gizartean gertatzen diren aldaketek guregan ere eragina dute. Emakumeen aldetik gero eta ahalduntze handiagoa dago. Egia da gure amek eta amonek ere merezi zutela aitortza hori, baina egia da baita ere eurek bizitako horrek gaur egun eta etorkizunera begira aldaketak behar dituela. Aldaketak behar ditu belaunaldi berriek, esate baterako, garrantzi handia ematen diotelako denbora libreari, parekidetasunari, kontziliazioari, gauza askori. Balore berriak heldu dira, eta horrek eskatzen du gure munduan ere berrantolaketa bat egitea. Birmoldaketa bat egin behar da derrigorrez».

